



A eredua

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HLEA

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena. 2) Irakurmena. 3) Idazlan luzea. 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

A eredua

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero galderen erantzuna idatzi behar duzu erantzun-orrrian.

1. atala

1.- Zer dira germinatuak?

- a) Zuhaitzen ernamuinak.
- b) Landareen zuztarrak.
- c) Hazitik datorren landarea.
- d) Garatutako sustraia.

2.- Etxean egiteko zailtasunik ba al du?

- a) Ez; iluntasuna behar du.
- b) Ez, balkoia baduzu.
- c) Ez, argia edukiz gero.
- d) Ez; ikasi egin behar!

3.- Edozein hazik balio al du prozesu horretarako?

- a) Bai, tratatua bada.
- b) Ez; baina ekologikoei bai.
- c) Bai; baratzeko edozeinek.
- d) Ez; etxeak ez.

4.- Haziak beratu egin behar al dira?

- a) Garbantzua bakarrik.
- b) Azal finekoak ez.
- c) Hazi potoloak bereziki.
- d) Denak beratu behar dira.

5.- Zenbat denbora behar du ernatzen hasteko?

- a) Bizpahiru egun.
- b) Ez du esaten.
- c) Baldintzen arabera.
- d) Eguraldiak baldintzatzen du.

2. atala

6.- Sortu bezain azkar jan behar al dira?

- a) Bai, momentu berean.
- b) Bai, uretatik pasatu ondoren.
- c) Ez; hozkailuan utz daitezke.
- d) Ez; gogortu egin behar dute.

7.- Nola jaten dira hazi erneak?

- a) Dietak dioen bezala.
- b) Nahitaez egosita.
- c) Gordinik hobe.
- d) Haziaren arabera.

8.- Zer hazi erabil daitezke era honetan ernatzeko?

- a) Bereziki animalientzat direnak.
- b) Baratzekoak bakarrik.
- c) Garia da egokiena.
- d) Asko eta asko.

9.- Prozesuan, zer da oinarritzkoa?

- a) Hezetasuna eta garbitasuna.
- b) Haziak ondo hautatzea.
- c) Hazi bakoitzak eskatzen duena.
- d) Berariazko ontziak.

10.- Edozein garai al da aproposa haziak ernatzeko?

- a) Egokiena udaberria da.
- b) Garai batzuk hobeak dira.
- c) Neguan ezin liteke.
- d) Oena ilbetea da.

Iturria: *Euskadi Irratia*

A eredua

2. IRAKURMENA

Jakiterik ez dagoena ez jakitearren kondenuak

2009ko apirilaren 6an Richterren eskalan 5,8ko magnitudea izan zuen lurrikara gertatu zen L'Aquilan (Italia); 309 pertsona hil ziren eta 35.000 pertsona etxebizitzarik gabe gelditu. Aurreko egunetan, eskala txikiagoko lurrikarak sumatzen hasi ziren ingurune hartan, ohikoak baino zerbait indartsuagoak, eta urduritasuna eta larritasuna hedatu zen gizartean. Mugimendu sismikoak zirela eta, Italiako Arrisku Handien Batzorde Nazionala bildu zen, eta, gizartea (...11...), lurrikara handiren bat gertatzeko arriskua beti bezalakoa zela iradoki zuen. Baina lurrikara gertatu egin zen eta, orain, batzorde horretako zazpi partaideek 6 urteko espetxea eta kalte-ordainen kargu egiteko zigorra jaso dute, hilketa anizkoitza, hondamen-arriskuko delitua eta nahi gabeko lesio pertsonalak eragitea leporatuta.

2011ko martxoaren hamaikan 9,0 magnitudeko lurrikarak astindu zuen Japoniako kostaldea: 20.000 lagun inguru hil ziren eta herrialde osoa alerta-egoeran jarri zen, (...12...) tsunamiak Fukushima zentral nuklearrean sortutako kalteengatik.

2010eko otsailaren 27an 8,8 magnitudeko lurrikara gertatu zen Txilen: 525 hildako eta 500.000 etxebizitza kaltetu.

Haitin 2010eko urtarrilaren 12an 7,0 magnitudeko lurrikarak 200.000 hildako (...13...) zituela kalkulatu da.

2004ko abenduaren 26an 8,9 magnitudeko (...14...) sismikoa sortu zen Indonesian, eta ondoren gertatu zen tsunamiarekin, 300.000 pertsonatik gora hil ziren. Horiek, gertuen ditugun zenbait lurrikara aipatzearen. Munduko sismologo (...15...) lurralde horietan egiten dute lan lurrikarak hobeto ezagutzeko asmoarekin. Inork ez zuen ezer (...16...), guztietan aurretik eskala txikiagoko hainbat lurrikara gertatu baziren ere. Zergatik? Ezinezkoa delako, (...17...) behintzat, lurrikarak non eta noiz gertatuko diren aurreikustea.

Kaliforniako penintsularen (...18...) egunero gertatzen dira eskala txikiko lurrikarak, eta sismologoek jakin badakite, estatistika aztertuz, laster indar handiko (...19...) bat gertatuko dela, historikoki ehun urtetik behin eskala handiko lurrikara bat gertatu delako lurralde horretan. 106 urte pasatu dira San Frantzisko hiria guztiz suntsitu zuen azken lurrikara bortitza gertatu (...20...), eta hurrengo noiz etorriko zain daude sismologoak, bai eta gizartea ere. Nahiz eta etorriko dela jakin, ezin da zehaztu noiz eta non gertatuko den, eta kasu honetan ez da baliabide (...21...) izango. Estatu Batuetan, eta baita Japonian ere, arrisku sismiko handiko lurraldeak izanik, sismologo eta baliabide ekonomiko gehien dituzten ikerketa-taldeak ari dira jo eta ke lanean. Baina, nahiz eta lurrikarei buruzko datuak gero eta gehiago izan eta ezagutzak aurrera egin, oraindik ez dago lurrikarak aurreikusteko eredu zientifiko fidagarriarik. Zer egin behar da lurralde horietan lan egiten duten sismologo guztiekin? Lurrikarek eta tsunamiek eragindako hildakoak haiei (...22...) eta denak espetxeratu?

Berriz diot, ez dago lurrikarak aurreikusteko (...23...) zientifiko fidagarriarik, ez eta hurbilketa egokirik ere. Noizbait ikerketa-talderen batek horrelako eredurik garatuko balu, Nobel saria (...24...) izango luke. Baina, oraingoz, egin daitekeen hurbilketa bakarra estatistika erabiliz egiten dena da. Lurralde bakoitzaren erregistro sismikoak (...25...) jakin dezakegu zenbat urtetik behin gertatuko den eskala konkretuko lurrikara bat ingurune jakin batean. Beraz, Kaliforniako penintsularako bi aukera daude.

Lehenengoa, hiri guztiak (...26...) eta landa-eremuetan kanpamentuak sortzea, lurrikara handiaren zain; horrela, inor ez litzateke hilko. Argi utzi behar da lurrikaren ondorioz hildakoen % 95, gutxi gorabehera, eraikinak (...27...) etorrita hiltzen direla. Baina horrela urtebete edo bi

A eredua

hamar edo berrogeita hamar egon gaitzke eta egoera (...28...) , zalantzarik gabe, gizarteak nahi ez duen bizitza-aldaketa dakar, ekonomiaren gainbehera eta beste hainbat arazo larri.

Bigarren (...29...) lurrikarekin bizitzen ikastea da, dardara datorrenean hildako-kopurua ahal bezainbeste murrizteko. Azken aukera horretan –jorratu beharreko bakarra, zalantzarik gabe–, bi dira (...30...) beharreko esparruak. Alde batetik, lurrikaren mugimenduak jasateko gai diren (...31...) altxatu, eta horretarako gastu ekonomiko bat onartu. L’Aquila herria eraikin historikoz josita zegoen –asko eta asko egoera tamalgarrian–, eta arrisku sismikoa duen lurralde batean onartezina da hori. Eraikinen (...32...) sendotzeko dirurik jarri ez zuten instituzioek ere, agian, hildakoen erruaren parte bat izango dute, ezta?

Bestetik, gizarteari lurrikarak zer diren eta lurrikaren aurrean zer egin erakutsi behar zaio, eta hori (...33...) bitartez baino ezin da egin. Beharrezkoa da jakitea lurrak nola jokatzen duen, eta historia geologikoan zehar lurrikarak eta jarduera bolkanikoa normalak direla, eta haiek (...34...) ezer ezin dela egin. Hala ere, informazio horren aurka doa Espainiako hezkuntza-ministroak esku artean (...35...) hezkuntza-plan berria. Plan horretan, Geologiak eta horren hurbileko ikasgaiek ez dute tokirik batxilergoan, guztiz desagertzen dira. Horrela, Lorcan (Murtzia) bezala, beste (...36...) tokitan hildakoak edo kalte material ugari sortzen duen hurrengo lurrikararen errua mugimendu sismikoa aurreikusi ez duten sismologoena izango dela sinetsiko du gizarteak, ez baitu irizpide propiorik izango.

Adi ekonomistok! Agian, epaile batek gainean dugun krisi ekonomikoaren neurria behar (...37...) ez igartzearren espetxera bidaliko zaituzte eta. Aldiz, sekula ez dituzte kartzelatuko krisia bazetorrela (...38...) ere neurri egokirik hartu ez zuten politikariak, horiek ez. Kontuz medikuntzan ikerketa egiten duzuenok, agian epaile batek hiesak edo minbiziak hildakoak zeuon (...39...) direla esango baitu, aurretik sendagai egokirik ez aurkitzeagatik, baina inoiz ez baita behar beste diru inbertitzeko gai izan ez diren politikarien errua izango. Tentuz ibili meteorologook, zuek aurreikusi baino euri-jasa handiagoa erortzen bada, (...40...) , kalte-ordainen kargu egin beharko duzuelako, kalte horiek konpontzeko aurretik egin zitezkeen inbertsioak egin ez dituzten politikariek ez baitute, noski, inolako errurik izango.

Arturo Apraiz, Elhuyar

A eredua

11) a) larritzeko b) argitzeko c) lasaitzeko d) babesteko	12) a) izan ere b) ondorengo c) osoko d) gaueko	13) a) izan b) sortu c) hondoratu d) eragin	14) a) higadura b) mugimendu c) jarraipen d) kalte
15) a) ezagunenek b) langilenek c) fidagaitzenek d) ikertuenek	16) a) esan b) lortu c) pentsatu d) aurreikusi	17) a) gaurkoz b) orduan c) niretzat d) fisikoki	18) a) uhartean b) inguruan c) gainean d) alboan
19) a) dardara b) zarata c) bultzada d) ekaitz	20) a) zelarik b) aurretik c) zenetik d) zenean	21) a) askogatik b) faltagatik c) txarragatik d) sendoagatik	22) a) bota b) lurperatu c) jakinarazi d) egotzi
23) a) eredu b) material c) teoria d) asmo	24) a) agindua b) jaso c) ikusia d) ziurtatua	25) a) baztertuz b) ikusiz c) aztertuz d) hartuz	26) a) hustu b) mugitu c) zenbatu d) bildu
27) a) ikuskatzera b) egitera c) behera d) ikustera	28) a) hori b) krudelak c) latza d) horrek	29) a) gertaera b) pausua c) aukera d) joera	30) a) egin b) landu c) ikusi d) agortu
31) a) eraikinak b) proiektuak c) etxebizitzak d) etorkizunak	32) a) salneurria b) egonkortasuna c) garaiera d) arriskua	33) a) hezkuntzaren b) jakin minaren c) zalantzaren d) jardunaren	34) a) asmatzeko b) prestatzeko c) iragartzeko d) ekiditeko
35) a) hartuta b) utzita c) darabilen d) gorderik	36) a) hurbileko b) ezkutuko c) haien d) edozein	37) a) bezala b) guztiz c) bada d) genukeela	38) a) asmatuta b) jakinda c) espero eta d) gauzatuta
39) a) saria b) asmakizuna c) kontura d) errua	40) a) ziur b) oxala c) agian d) behingoz		

A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....

A eredua

ERANTZUN ZUZENAK

HLEA: Ahozkoaren Ulermena (Hazierneak)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
C	A	B	D	A	C	C	D	A	B

HLEA: Irakurmena (Jakiterik ez dagoena ez jakitearren kondentatuak)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
C	B	D	B	A	D	A	B	A	C
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
B	D	A	D	C	A	C	D	C	B
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
A	B	A	D	C	D	A	B	D	C